

GGKEen Koordinakundean Prestakuntza Plan bat egiteko laguntzarako erreferentziak

1. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA

Euskadiko GGKEen Koordinakundea www.ongdeuskadi.org, 1988an eratua, Garapenerako Lankidetzaren eta Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzaren alorretan lan egiten duten 83 erakundek osatzen dute.

Nagusiki, kide diren erakundeek ekintza koordinatzen jarduten dugu, lankidetzaren eta gure sektorea hobetze aldera, eta, funtsean, honako arlo hauetan:

- **Garapenerako lankidetzaren kalitate onekoa izatea sustatzea**, hala erakunde publikoetan nola pribatuak, bai eta kide diren GGKEetan ere.
- Kide diren **GGKEei laguntzea** haien lanean zein haien ahalmen politikoak eta teknikoak sendotzen.
- Gure ingurunean **eraldaketa soziala gauzatzen laguntzea**, mundu-mailan ere aldaketak lortzeko.

2. JUSTIFIKAZIOA

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak zenbait urte daramatza kide dituen erakundeek prestakuntza-beharrak aztertzen, eta Koordinakundearen lehentasun estrategikoekin zein kide diren erakundeetan eta finantziarioak arduratzen diren erakundeetan hautemandako beharrek bat datorren prestakuntza-programa bat gauzatzen. Jarduera horren guztiaren emaitza gisa, prestakuntza-programa bat sortu da, deskribatutako xede horiekin bat datorrena, baina nolabaiteko sistematizazioa eta planifikazioa eskatzen dituen.

3.- XEDEA

Koordinakundeko lantalde teknikoaren laguntzarekin, xedea da sistematizazio metodologiko eta estrategikorako tresna bat sortzea Koordinakundearen prestakuntza-esparruan, erakundeek eta, oro har, lankidetzako eragileek artean hautemandako beharretan oinarrituta. Hori guztia kontuan hartuta prestakuntza-jarduerak, etorkizunean, ordenatutako plan koherente baten parte izan behar duela. Erakundearen prestakuntza-plan sinplea, beharretara egokitua, prestakuntza-prozesuetako parte-hartzea sistematizatzeko tresnak emango dituen, eta etorkizunera begira hobetzeko elementuak bilatuko dituen.

3.- METODOLOGIA

- Koordinakundearen azken prestakuntzei, lantegiei eta jardunaldiak buruzko informazioa bilduko da, bai eta erakundeek horietan izan duten parte-hartzeak buruzkoa ere.
- Kide diren erakundeek prestakuntza-beharrak identifikatuko dira, eta finantziarioak arduratzen diren eragileekin ere kontrastatuko da hori.

- Identifikatutako beharren, sistematizatutako eskaintzaren eta Koordinakundearen lehentasun estrategikoen arteko koherentzia aztertuko da.
- Etorkizunerako proposamenak jasoko dituen plan sistematizatu batean antolatuko da informazio hori guztia.
- Prestakuntza-prozesuetan parte hartzeko tresnak ere sartuko dira.

4.- TXOSTENA

- Espero den amaierako produktua Koordinakundearen Prestakuntza Plan bat da.

5.- KRONOGRAMA

Prozesua irailaren amaiera aldera hasiko da, eta lehenengo zirriborroak prest egon beharko du azaroaren 20a baino lehen. Amaierako lanak prest egon beharko du abenduaren 20a baino lehen.

5. ESKAKIZUNAK

Hauek izango dira hautatze-irizpideak:

- Sektorearen eta GGKEen errealitatea ezagutzea.
- Ezagutza edo esperientzia izatea prestakuntza-planen lanketan.
- Aurretiko lan-esperientzia izatea GGKEekin.
- Euskal GGKEen testuingurua eta lana ezagutzea.
- EAE barruan joan-etorriak egiteko aukera izatea.
- Genero-berdintasunari buruzko ezagutza eta sentsibiltatea izatea.
- Euskaraz jakitea.

6. AURREKONTUA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua edo, hala badagokio, gastu adierazgarriarena, 2.700 € gordinekoa da, eta bertan sartuta daude prestazio hori zergapetzen duten zerga guztiak. Elkarriketak egiteko egin beharreko joan-etorriak eta datu-bilketak eragindako bestelako gastuak ere sartuta daude.

7. ORDAINKETAK

Ordainketa legezko faktura bat aurkeztu ostean egingo da, honela:

- % 50eko lehen ordainketa bat kontratua sinatzen den unean.

- % 50eko bigarren ordainketa bat betetako datuak aurkezten direnean kontratuko baldintzei jarraikiz.

8. AURKEZPENA

Irailaren 27ra arte egongo da irekita proposamen tekniko eta metodologikoa aurkezteko epea. Interesa duten pertsonak beren curriculum eta informazio garrantzitsua bidali beharko dute honako helbide honetara: coordinadora@ongdeuskadi.org. Hau jarri behar da gaian: Ref. Acompañamiento Informe del Sector.